

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

1677/2018 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, onartzen duena Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaiko kideen izendapena

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 105/2017 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa (2017-2020) eta jakinarazi zitzaion Batzar Nagusietako Euskara, Kultura eta Kirol Batzordeari, eztabaidatzeko.

Arabako Batzar Nagusietako Euskara, Kultura eta Kirol Batzordeak, 2017ko ekainaren 9an, Arabako Kultura Plan Estrategikoa (2017-2020) eztabaidatu zuen (ALHAO, 74. zk., 2017ko ekainaren 30ekoa).

Plan Estrategikoak epe ertaineko ikuspegi bat ezartzen du, plangintza jardun espezifikoak iradokitzeko. Arabako Foru Aldundiak egin beharreko kultur politikaren gida izan nahi du planak, jarduteko lehentasunak ezarri, alde aurretik gogoeta estrategiko bat eginik kultur eta sormen sektoreek duten gizarte garrantzia aintzat hartuta.

Arabako Foru Aldundiaren esparruan, Euskara, Kultura eta Kirol Saila da plan estrategiko horri darizkion egitekoak gauzatzeko ardura duena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinaren bidez onetsi baitzen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia eratzea eta haren osaera, antolaera eta funtzionamendua arautzea.

Aipatutako Foru Dekretuko 3. artikulua zehazten du ezen Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia honako kide hauekin osatuko dela:

- Mahaiburua: Kulturaren arloko Saileko diputatua edo hark eskuorde izendatzen duena.
- Mahaikideak: gehienez ere 24 izango dira, kulturaren eta sormenaren sektoreko kolektibo eta agente publiko nahiz pribatuak ordezkatzuz. Ahalegina egingo da beste sektore batzuetako pertsonak parte har dezaten, baldin haien interesak eta gomendioak kulturaren eta sormenaren garapena bere adierarik zabalenean eragiteko eta laguntzeko gai badira.
- Idazkaria: Kulturaren arloan eskumena izanik kultur jarduera sustatzea eginkizun nagusizat duen Saileko zerbitziburua izango da mahaiko idazkari. Mahaiaren bilkuretan hitza har dezake baina ez du botorik izango, eta kide anitzeko organoetako idazkariek eduki ohi dituzten eginkizunak beteko ditu.

5. artikuluan, berriz, honako hau ezartzen da: kulturaren arloko zuzendari titularra izango dela mahaiko kideetako bat, bere karguari dagokionez. Gainerako mahaikideak izendatzeko, ostera, kulturaren arloan eskumena duen diputatuak foru agindua eman behar du, kolektibo eta agente batzuek eta besteek proposatuta, hala balegokio.

Era berean, 5. artikuluan bertan ere ezartzen da mahaikideak izendatzeko prozesua emakume eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren irizpidearen arabera gauzatu beharko dela, berdintasunari buruzko araudietan jasotzen den bezala, eta, bereziki, 4/2005 Legea (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa) eta 3/2007 lege organikoaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz (3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa).

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta eta dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Honako pertsona hauen izendapena — guztira 23— onartzea Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaiko mahaikideak izan daitezen, kulturaren eta sormenaren sektoreko hainbat kolektibo eta agente publiko eta pribaturen ordezkari diren aldetik:

- Daniel Castillejo Alonso
- Nora Igartua Ugarte
- Kontxesi Elejalde Villalaín
- Josu Pérez de Villarreal Larrea
- Carlos Ortiz Gauna
- Itziar Garayo Mugarza
- Zuriñe Zabala Urtaran
- Ignacio Rodríguez Arkaute
- Araceli de la Horra Gutiérrez
- Josune Albizu Urteaga
- Félix López López de Ullibarri
- Javier Alcorta Ruiz de Azúa
- Iara Solano Arana
- Irantzu Lekue Madinabeitia
- Idoia Zabaleta Morán
- Ander Gondra Aguirre
- Iker Sánchez Silva
- José Maria Armentia Macazaga
- Garbiñe Ortega Postigo
- Inguma Martínez Cordero
- Ángel López de Luzuriaga Fuerte
- Sara Berasaluze Duque
- Josu Sánchez Halsouet

Bigarrena. Aurreko idatz zatian izendatutako pertsoneri ebazpen honen berri ematea, jakinararen gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena. Hartu den biharamunetik izango ditu ondorioak erabaki honek, interesdunei jakinarazteko beharra gorabehera, eta ALHAOn argitaratu ote den alde batera utzita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 22a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE